


6 mantangorri



AZOKA

LIBURUAK

Izenburuak: 'Antartidarako bidaia', 'Oihanean galdua','Sarean harrapatua' eta 'Dinoauroen loaldia'. **Testua:**Montse Homs. **Marrazkiak:** Marta Biel. **Itzulpenea:**Antton Olano. **Orrialde kopurua:** 32na orrialde, koloretan.**Adina:** 4-7 urteko haurrentzat. **Argitaletxea:** Tarttalo.

Jolastea maite dute Mattinek, Annak, Lik, Denisek, Salimek eta Txuritxakurrak, Bixkorrauk lagun taldeko kideek. Parkean elkarren dira beti, baina, parkeetik, munduko bazter eta txoko askotara bidaiatzen dute, irudimenearen laguntzaz. Bidaiatu nahi alduen Antartikara, oihanera edota dinosauroen garairan?

Bixkorrauk haur kuadrilla da bildumako protagonista. Nortzuek osatzen dute?

Sei haurrek osatzen dute Bixkorrauk taldea, eta taldeko kide bakoitzak bere izarea du: Mattin behatzalea trebea da; Anna, erabakiak erraz hartzen dituen neskato ausarta; Li, beriz, lagun taldean gehien hausnartzen duena da; Denis oso ameslaria da; eta Salim, oso ausarta. Txurida, Mattinen txakurra, taldeko seigarren kidea, eta oso filosifioa da.

Eta zer egiten du taldeak?

Jolasten, korri egiten, amesten... duten haurrek dira. Talde gisa, irudimentsuak, burutsuak, ongi heziak, zinezkoak eta begirune handikoak dira. Adiskidetasunaren beharrezko balioak transmititzen di-

Montse Homs

IDAZLEA

«Sentimenduak piztu eta haurrek motibatu nahi ditu bildumak»

tutze, eta askotariko abenturak izaten ditu lagun kuadrillak.

Istorio guztiak parke batean hasten dira. Zer gertatzen da han?

Istorio guztiak benetako egoera batetik abiatzen dira. Lagunak parke batean elkartzen dira, eta, han, denetariko jolasetan aritzen dira. Egoera erreala horietatik abiatuta, haurrek irudimena askatu, eta askotariko abenturak izango dituzte. Istorio horien bidez adierazi nahi izan diet haurrei irudimenak lagundi egindo diela bestelako errealtitateez gozatzen eta bestelako munduetara bidaiatzen, eta hori ezinbestekoa dela hazteko eta ikasteko.

Parketik abiatuta, nora bidaiatzen du taldeak?

Antartikara bidaiatuko dute lehen liburuan. Bidaia horri esker, bero-tzearen eraiginak ezagutuko ditu seikoteak. Amazoniako oihanean barneratuko dira Oihanean galdua liburuan. Oihan horri zergatik deitzen zaion planetaren birikaikasiko dute bidaia horretan. Itsaso tropikal batean kokatzen da Sarean harrapatutako liburuko abentura. Itsasora egingo duten bidaia horretan, itsasoan utzitako sare batzuetan preso dauden izurdeak askatuko dituzte. Eta, azkenik, Dinoauroen loaldialiburuan, iraganera bidaiatuko dute, eta dinosauroak gertu-gertutik ezagutuko dituzte.

Bi modutara idatziak daude testuak: elkarrizketak, letra larriz eta komiki itxuran; azalpena, letra xehez eta orriaren oinean.

Irakurtzen hasi berri diren haurrentzako liburuak dira. Ahozko hizkuntza da elkarritzeta, eta, beraz, letra larriz eta komiki itxuran aurkeztu dut, irakurleek errazago uler dezaten. Istorioa eta azalpenak, berriz, letra xehez eta eskuz idatzi dira. Oraindik haurrek ez badute behar bezala menderatzen irakurketa, helduren batekin irakur dezakete istorioa.

Tamainaz, liburu ikusgarriak dira.

Gaztetxoentzako liburuak izanik, haurren arreta erakarri nahi izan da tamainarekin. Gainera, Marta Bielen sentimenduz beteriko ilustrazio koloretsuek eta alaiek liburu ilustratu bat dago-kion formatua merezi dute.

Istorioek askotariko balioak ezkutatzen dituzte, ezta?

Bai, askotariko balioak transmititu nahi izan dizkiet irakurleei: adiskidetasuna, errespetua... Jatorri askotariko haurrek dira protagonistak, eta, hala, kultur aniztasuna eta eleanitzasuna aberastasun gisa aurkezten dut. Horrez gain, bestelako balioak eta mezuak ere helarazi nahi izan ditut: naturaren errespetua, taldeko lana, arazoak konpontzeko adimena eta ekimena, emozioen kontrola...

Zein da helburua?

Errealitatetik haratagoko esperientziak eta egoerak izateko aukera ematen du literaturak. Hezten, hazten, arazoak konpontzen eta mundua ulertzten laguntzen diete haurrei egoera horiek. Sentimenduak piztu eta haurrek motibatu nahi ditu bildumak. Hori lortzen badugu, gehiago irakurri nahiko dute, irakurketak bizitzari zer ematen dion konturatuko direlako.